

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko maiatzaren 10a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Euskal Jai Gaztetxea bere VIII. urteurrena ospatzeko jai egitarauan sartuta dago egunotan • **3**

Mikel Mikeo • «Jendeak irri egiten ez duenean ere aurrera jarraitu behar duzu» • **7**

Titiko

esne tan ta...



Haur jaioberrientzat amaren titiko esnea omen da elikagairik onena. Nutrizio egokia eskaintzen du bularreko esneak, eta infekzio eta alergien kontra babesten du haurra. Horretaz gain, amaren eta umearen artean harreman berezi eta estua sortzen da, eta hori oso lagungarri suertatzen bide da txikiaren bilakaeran. Alta, edoskitzearen inguruko topikoek biberoiaren kultura oraindik indarrean egotea eragin dute. Nafarroako Esnearen Ligak aipaturako topikoak apurtu eta seme-alabei bularra eman nahi dieten emakumeak laguntzea du xede. Gurean hiru urte daramatzate horretan.

Nafarroa • Ageriko edertasuna



Lizarrako gune historikoa. • KRISTINA BERASAIN



Iarteko monasterioa. • EGUNKARIA

Iruñeko Errekoleten komentua. • LANDER F. ARROIABE



Torralba del Rio herriko argazki orokorra. • EGUNKARIA



Interes kulturala duten lau ondare izendatu berri ditu Nafarroako Gobernuak

N AFRROAKO HAINBAT TXOKO-
ren edertasuna ageriko bada ere, ondarea babesteko zenbait izendapen sortu dira, eta horietako bat da *interes kulturala duen ondarea* izendapena. Berriki Nafarroako Gobernuak lau leku gaineratu ditu izendapen hori biltzen duen zerrendan: hain zuzen ere, Lizarrako gune historikoa, Iruñeko Errekoleten komentua,

Torralba del Rio herriko harresiak eta Leten dagoen Iarteko monasterioa.

Interes kulturala duen ondarea izendapena izateagatik, Nafarroako Gobernuaren babes legala jasoko dute hemendik aitzina aipatu lekuek. Lizarrako kasuan, bere gune historikoa osoa jo dute interesgarritzat. Iruñeko Errekoleten komentua ere oso-osorik hartu dute. Ko-

mentua 1632. urtean eraiki zuten, Juan Zirizaren aginduz; Felipe II.aren idazkari eta Iruñeko katedralaren kalonjearen aginduz, alegia. Komentua Iruñeko harresi zaharreko harriekin jaso zuten.

Torralba del Rio Kodes mendikatearen magalean dagoen herrixka bat da. Bertako harresi ingurua XIV. mendekoa da, eta berez Gaztelatik babesteko

eraiki omen zuten. Harresiek oraindik zutik jarraitzen dute oso-osorik.

Azkenik, Izako bailaran dagoen Lete herrixkako monasterioa ere izendatu dute intereseko toki. Iarteko monasterio txit politik, bertzeak bertze, erromaniko tankerako baseliza du bere baitan.

→ Kristina Berasain

Barañain • Txotxongiloen aterpea

BARAÑAIN TRAPUZKO PANPINEN ATERPE BIHUR-
tu da aurtengo udaberrian ere; izan ere, Barañaingo Txotxongilo Jaialdiak zortzigarren aldia du. Joan den astelehenean hasi zen ikuskizuna, eta hilaren 27a arte hamai-ka emanaldi izanen da, nazioarteko hainbat konpainiaren eskutik. Gaur Les Contes de la Chaise a Porteurs taldeak *El monton (Pila)*

lana taularatuko du 12:00etan eta 18:00etan. Bihar, Frantziako Bululú Théâtre konpainiak *El titiritero (Tirititeroa)* ikuskizuna antzestuko du. Igandean Bulgariako Teatro Plus taldearekin da hitzordua. 12:00etan *Muy sabroso (Goxo-goxoa)* lana taularatuko du. Datorren astean Euskal Herriko, Kataluniako, Andaluziako, Gazte-

la-Mantxako eta Murtziako taldeak ikusteko aukera izanen da Barañainen.

Txotxongilo jaialdia, alta, ez da horretan gelditzen; izan ere, hilaren 24a arte bi erakusketa paratu dituzte Kultur Etxean: bate-tik, Ismael Peñaren bildumako panpinak, eta, bertzetik, iazko jaialdian egindako txotxongiloen inguruko argazki lehiaketako lanak.

→ Kristina Berasain

Zaraitzu

Elebitasunari buruzko jardunaldiak

GAUR ABIATUKO DIRA ZARAITZUKO Euskara Zerbitzuak eta Xardoki Euskara Taldeak elebitasunari eta euskararen normalizazio sozialari buruz antolatu dituzten jardunaldiak. Kike Amonarrizek ekinen die ekitaldiei, *Eske hau superguai da: XXI. mendeko gazte hizkera?* izenburuko hitzaldiarekin. Hitzordua iluntzeko 20:00etan da, Otsagabiko Kontsultategian. Gauean, bertso-afaria ospatuko da Gartxot elkartearen. Bertan, Oskar Estanga, Aritz Sarageta eta Peio Goikoetxea arituko dira bertsoetan.

Ekitaldiek bihar izanen dute jarraipena, Ezkarozeko Ibar Etxean. Bertan, Juan Carlos Etxegoien *Xamar* idazleak hitzaldi bat emanen du, 20:00etan: *Hizkuntzen prestigio galtze prozesua eta horri buelta nola eman*.

Jardunaldiek hurrengo asteburuan izanen dute bigarren partea. Gaur zortzi Aingeru Epaltza entzuteko parada izanen da, iluntzeko 20:00etan, Otsagabiko Kontsultategian. Idazlea *Elebitasuna munduan eta Nafarroan* gaiaz arituko da. Datorren larunbatean, azkenik, Xabier Mendigurenek, euskararen egoera ardatz, *Gaur egungo euskararen egoera Nafarroan, Iparaldean eta Baskongadetan* izenburuko hitzaldia eskani-ko du.

Jardunaldiak laguntzeko, Euskal Herrian Euskaraz taldeak hizkuntza eskubideei buruz egin erakusketa paratuko dute gaurtik aitzina, Zaraitzuko ibarrean. Hilaren 19ra arte izanen da ikusgai aipatu erakusketa, goizez Otsagabian eta Ezkarozen goizez eta arratsaldez.

→ Kristina Berasain

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Negoiazioak porrot egin zuen

M aputo express egunkari prestigioaren arabera, duela sei egun bildu ziren (isilean, ohi den legez) Nazio Batuen Erakundea (NBE) eta Greziako Gobernua, Pandoraren afera dela medio. Ezaguna da emakume honek gizateriak aspaldi nozitzen duen kalapita, zoritxar, hondamendi eta lakoetan izandako parte hartzea (batzuek zuzena, gehienondako zeharkakoa). Pentsak jakin duenez, badirudi Collin Powellek (NBEko boss) galdegin ziola Greziako Gobernuari, baita sine qua non klausula ezarri ere, Hagan epai genezan arestian aipatu andre zahar hura. Greziako gobernuak, Kostis Stephanopoulosek, ezetz borobila eman ei zion. Luze eta tensio handikoak (batez bertzekoa 230KW) izan ziren ne-

goiazioak. Ematen du amaiera aldean Greziako Gobernu prest zegoela Pandoraren zigorra ordaintzeko, Zeusen beraren proposamena aintzat hartuz. Horren arabera, Pandorak hartuko luke bere gain duela 5.000 urteko zoritxar kopurua (ggb). Haatik, ez luke onartuko Mr Collinek ezarri nahi diona: hau da, Minotauroren desagerpenaren (eufemismoa erabiliz) ondorengo guztia, Troiako gerla barne. Mementoz ez omen da akordioarik, eta giroa izoztu da.

Tirabirak EBraino heldu dira. Mulhacengo erpinean ospatutako (beti ospakizunetan, ezta?) goi bileran Greziako lehen ministroa haserretu zen Belgikako finantza buruarekin, haren aipamen ironikoekonomiko bat zela

eta. Txantxa ez zion bat ere graziaz egin eta, horren ondorioz, argazkian ez ziren azaldu elkarrekin. Aznarrek ez zion garrantzirik eman nahi izan gertaerari eta Photoshopekin konponduko zutela gehitu zuen kafe orduan.

Pandoraren alde mundu osoko intelektual, idazle, igeltsero eta mendizale ugari lerrotatu dira. Manifestu bat idatzi dute, nahi duenak sina dezan. Pandoraren erabateko askatasuna eskatu dute eta erugabetzat jo dute. Hauen aburuz, gizonek ireki zuten itxita beharko zuena. Pandoraren hutsa zuritu dute latinazko erramolde ezagunarekin: *errare humanum est*.

Azken orduan, halere, konponbidea gertu dagokeela derrakegu: Pandora atxilo ukanen dute; bere etxean preso izanen da. Ez dago emakumea espetxerterik, zaharregia da eta.

Iruñea ●

Zortzi urte aitaren batean

IRUÑEKO GAZTE ASANBLADAK (IGA) udaberriaren etorrerarekin batera okupatu zuen San Agustin karrikan dagoen Euskal Jai pilotaleku zaharra. Dagoeneko, zortzi udaberri igaro dira ordutik. Alta, bidea ez da erraza izan. Eraikinean sartu eta handik egun gutxira, Polizia Nazionala bertan zeudenak kanporatzen saiatu zen. Hemezortzi lagun teilatura igo, eta bertan pasatu zuten gaua. Hura izan zen hasiera, eta memento horretan bukaera gertu ikusten bazuten ere, denborak aitzina egin du. Zortzi urte di-batean igaro dira, eta zortzigarren urtebetetzeak ospakizun berezi-berezia merezi zuen. Horretan ari dira egunotan Iruñeko gazteak, ospakizun jaiari murgilduta, alegia.

Egitaraua joan den asteartean abiatu zen, urtebetetzea ospatzeko egin zuten tarta txapelketarekin. Asteazkenetik ekitaldi anitz egin dituzte: antzerki emanaldiak, hitzaldiak, lantegiak, ikastaroak... Gaur arratsaldean, haur festa egingen dute San Frantzisko plazan, eta gero, txokolata dastatuko dute Gaztetxean bertan. Iluntzean, kalejira, eta gauean, kontzertua MOB H.C., Anorexia eta Kous taldeekin.

Iruñeko Alde Zaharrean dagoen Euskal Jai Gaztetxeak zortzi urte bete berri ditu



Egitarau oparoa, zabala eta bitxia prestatu du Iruñeko Gazte Asanbladak, orain aterpe duten gaztetxearen VIII. urteurrena ospatzeko. Gaur iluntzean, kontzertua egingen da, eta bihar, egun osoan, hamaika ekitaldi izanen da.

Bihar, jai egun handia

Biharko ekitaldiak bilduko du jende gehien. Goizean, IGAKo pala eta pilota txapelketaren finalak jokatuko dituzte. 13:00etan, preso politikoen aldeko poteoa, kalderetea eta dantzaldia izanen dira. Arratsaldeko 18:00etan, hitzaldia izanen da, eta gauean, berriz, antzerki festa handia: Jam Session.

Igandean ere egonen da egitekorik. Goizean, futbol partidak izanen dira, eta arratsaldean, patinatze U-aren inaugurazioa egingen da, irristailuen eta txirinduen erakustaldiarekin. Iluntzean, berriz, zinema. Astelehenean eta asteartean, antzerki emanaldiek amaiera emanen diote aurtengo ospakizunari.



Iruñeko Euskal Jai Gaztetxea. Pilotalekua goian, eta Lapiku taberna eta jantokia behean. ● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Zaharberitze lan handia

Iruñeko Gazte Asanbladako ki-deak aurri egoeran zegoen 2.200 metro koadroko eraikina okupatu zuten: teilatua estalki-

rik gabe zegoen, eta egitura erortzeaz. Pilotalekuko hiru solairuak eta ganbara ere oso gaizki zeuden. Halaz ere, gaztetxoek lanari gogoz ekin zioten, eta zaharberitze lan handia

egin eta gero, egunez egun txukunagoa dagoen aterpea lortu dute. «Eraikina oso handia da. Gune guztiak guk egin ditugu, eta horrek sekulako lana eskatzen du, baita egoera onean zaintzeak ere» diote IGAKoek.

Gaztetxeko behealdean, Lapiku jantokia, taberna eta sukaldea paratu dituzte. Pilotalekuan, mota guztietako kirolak egiten dituzte gazteek, eta gaitzietako solairuetan, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak eta bertze egiten dituzte. Autokudeaketa eta batzarrak egitea dira, hasieratik gaur egun arte, gordetzen diren bi ezaugarriak. «Egunez egun egiten joan gara dena. Denon artean erabakitzen ditugu gauzak, eta horrela izaten jarraitu behar du» diote Euskal Jaiko gazteek. Halaber, gaztetxea leku irekia izateko aldarrikatzen dute. «Topagune bat izatea nahi dugu, mota guztietako ekitaldiak egin ahal izateko lekua» gaineratu dute.

→ Kristina Berasain




urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Durruti


Lehenengo batean, irakurtzen ari nintzen liburu bateko orrialdea pasa (ehunka orrialderen artean beste bat) eta bat-batean, nire aurrean, Buenaventura Durruti hil zuten. Horrela, tupustean, Durrutiren asmo eder guztiak nire aurrean akabatu zituzten. Madrilen geunden, faxistak han nonbait zeuden, liburuan agertzen diren hango eraikinen atzealdean-edo egongo ziren, zeren batzuek tiroa hortik etorri zela diote, baina ez dago ziurtatzerik; kontua da Durruti hil zutela, Durruti jada ez dagoela gure artean. Nire aldetik, orrialdeetan aurrera egin, eta lurperatu eta liburuak bukatu nuen. (Gero, txorakeria galanta irudituko zaizue, liburu itxiari begira, harrigarria iruditzen zitzaidan hasierako orrialdeetan horren bizirik irautea oraindik ere Durrutik).

Hurrengo egunean, amaren etxera joan nintzen bazkaltzera, eta bidean aurkitu nuen. Beraz, beso eskaini, eta etxerako bidean, ea Buenaventura Durruti izena ezagutzen zuen galdetu nion. Berak ezetz. Susmagarria irudituko zitzaidan eta azalpentxo batzuk eman nitzkion ea horrela gogora ekartzen zuen. Anarkista bat zen, esan nion, Gerra Zibilean Bartzelonan gudaroste bat antolatu, eta Zaragoza armaz hartzera abiatu zena. Amak «¡uy, qué valor!» (sic) bota zuen. Esan nion Durrutik ozenki adierazitako asmoen artean, «Zaragoza hartu eta ondoren Iruñea garaitzea» zegoela. Amak «uyyy!» egin zuen, berriz ere. Ez nion esan irakurritako liburuaren erdiko orrialdeetan irakurri nuela hura, ez nion kontatu Aragoiko frontearen lubaki batetik egin zituela adierazpen horiek, Zaragoza, hoge kilometro eskasetera, begi bistan zutenean. Ez nion esan, txorakeria galanta irudituko zaizue, liburuan itxaropenez egin nuela aurrera, ea anarkistek Zaragoza hartzen zuten irrikaz, ea gero Iruñean sartzen ziren desiratzen. Baina liburuan aurrera egin ahala, gero eta zailagoa ikusten nuen hura, eta azkenean, Madril defendatzera abiatu behar izan zuten, eta hantxe hil zen nire itxaropena, eta hantxe hil zuten Durruti eta bere asmo ederrak. Ez dakit inoiz ohartu zareten, baina anarkistek ez zuten Iruñea hartu. Sekula ●



Goxo-goxo, bero-bero

ARGAZIAK: GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



NAFARROAKO ESNEAREN LIGA
Isabel Garcia: 948 24 35 10
Laura Laubach: 948 17 41 11

AMAREN BULARREKO ESNEA BIZITZEN hasteko modurik osasuntsuena omen da ume jaioberriarentzat. Digeritzeko erraza da, eta nutrizio egokia eskaintzan dio haurrari, eta infekzio eta alergiei aurre egiteko babesa ematen. Horretaz gain, bularra emateak eskatzen duen gertutasun fisikoak amaren eta haurraren arteko lotura indartzen du. Harreman berezi eta estu hori lagungarria da umearen garapen emozionalean ere, eta bularra ematea esperientzia zoragarria da nola amarendako hala haurrarendako. Hauexek dira, oro har, Nazioarteko Esnearen Ligaren oinarriak. Edoskitzeak dituen abantailak asko dira, eta amaren esnearen onurak ere askotarikoak. Eta hauxe da, hain zuzen ere, helarazi nahi duten mezua.

«Titia ematea gauza erabat naturala dela argi izan behar dugu. Gizartea kontzientziatu behar dugu, hori da gure xedea. Gure eguneroko lana amekin egiten dugu, zuzenean, baina gizarte osoa barneratu behar dugu». Isabel Garciaeren hitzak dira.

Isabel Esnearen Nazioarteko Ligak Nafarroan dituen bi monitoreetako bat da. Edoskitzea gauza arrunt naturala bada ere, gaur egungo gizartean ez da guztiz normalizatzen josten; izan ere, urteetan zabaldu diren mezu desegokien eraginez, oraindik biberoniaren kultura bizi gara. «Guk bularra ematearen kultura sustatu nahi dugu», gaineratu digu Isabellek.

Gobernuz kanpoko erakundea
Nazioarteko Esnearen Liga gobernuz kanpoko erakunde bat da, eta haurrei bularra eman nahi dieten amei argibideak eta laguntza ematea du xede. Mundu oso-

Esnearen Nazioarteko Liga Nafarroara ailegatu zela hiru urte bete dira. Denbora tarte honetan, asko eta asko dira bularra ematearen inguruko informazio bila erakundera jo duten emakumeek



Isabel Garcia

«Titia ematea gauza erabat naturala dela helarazi nahi dugu. Gure eguneroko lana amekin egiten dugu, baina gizarte osoa barneratu behar duen mezua da gurea»

an dago barreiatuta, eta orotara, 8.000 monitore boluntario ditu 60 herrialdeetan. Nafarroan, duela hiru urte ekin zioten elkarteak osatzeari, eta dagoeneko, 1.000 telefono dei jaso dituzte informazio eske. Egun, 25 kide daude elkartearen, eta txostenak eta esku orriak argitaratu dituzte. Halaber, hilabetearen bitan hitzaldiak eta bilerrak antolatzen dituzte.

«Oso harrera ona izan du elkarteak. Emakumeek interes handia dutela nabaritu dugu, eta oso pozik hartu dituzte Esnearen Ligak eskaintzen dituen zerbitzuak. Gehienetan, zalantzak argitzera etortzen dira guregana: titiburuak ez mintzeko zer egin dezaketen galdetu, edo lehen asteetako bular-ematearen inguruko informazioa eskatzen digute, batez ere. Ama askok, era berean, bularra ematea eta lana bateratzeko modurik ba ote dagoen galdetzen digute», dio Isabellek.

Edoskitzearen inguruko informazio falta
Isabellek Bartzelonako elkartera deitu zuen bere aurreneko semearekin hainbat arazo izan zituenean. Erabat lasaituta gelditu zen Esnearen Ligatik jaso zuen informazioarekin, zalantza guztiak argitu zizkioten, eta gerotik, harreman estua izan du erakundearekin. Bertze emakumeak laguntzea ere otu zitzaion,

eta Laura Laubacheekin, Nafarroako Esnearen Liga sortu zuen. Memento honetan gurean dauden bi monitoreak dira Laura eta Isabel bera.

«Edoskitzearen inguruko informazio argiago behar zela sumatzen nuen nire inguruko emakumeen artean, eta monitore boluntario izateko erabakia hartu nuen. Ikastaro trinko bat egin behar izan nuen», azaldu digu Isabellek. Monitore izateko, aurretik bularra ematen urtebeteko esperientzia izatea eskatzen dute. «Horrela, bertze amei bi motatako informazioa ematen ahal diezu: nolabait, teorikoa dena, liburuetan datorrena eta, bertzetik, zure esperientziatik ateratzen zuzun informazioa».

Gerora etorri ziren bertze bi haurrekin gauzak errazagoak izan zirela aitortu digu Isabellek. «Araozak, gehienetan, in-

formazio faltagatik sortzen dira, eta horrek zalantza aunitz eragiten ditu. Ez dakizu nola paratu umea, ez dakizu zenbatetan eman behar diozun... Eta emakumeari sortzen zaizkion duded gain, adituen arteko iritzi kontrajarriak daude. Galdera beraren aurrean erantzun ezberdinak jasotzen dituzu, eta horrek nahasi egiten zaitu».

Txostenak, esku orriak, hitzaldiak...
Nafarroako Esnearen Ligak hitzaldia eskainiko du gaur goizean Iruñeko Donibane auzoko Osasun Etxean, goizeko 11:00etan. Hilaren 20an eta ekainaren 7an eta 17an ere bilerak egingen dituzte. «Esperientziak trukatzeko oso lagungarria da amentzat. Bertze emakumeekin hitz egiteko aukera izateko bularra ematen jarraitzeko gogoa ematen die amei, eta, bileretan, dauzkaten zalantzak argitu ditzakete», adierazten du Isabel Garcia.

Nafarroako Esnearen Ligak bularra emateko argibideak ematen dituen esku orria argitaratu berri du. Bertan, haurra egoki paratzeko moduak zehazten dira. «Haurraren sabelak amaren kontra egon behar du, eta haurrak ahoa ongi ireki arte

itxaron behar da. Orduan, bularra hurbildu behar da haurra, eta titiburu eta areolaren zati bat ere hartu behar ditu ahoarekin», azaltzen du Esnearen Ligako ordezkariek. «Modu horretan, amaren titiburuak osasuntsu irautea eta haurrak eraginkorrago xurgatzea eta aseta gelditzea bermatuko da».

Illo horretan, bularra ematearen inguruan dauden hainbat mamu uxatzeko *Bularra emateko 10 gakoak* izeneko txostena ere argitaratu dute. Liburuxka horretan, bularra ematen lehenbailehen hastera gomendatzen da. «Umea jaio eta lehen hamasei asteetan prozesu hori egokia finkatzea da gakoak. Haur gehienak bularra hartzeko prest daude erditu eta lehen ordua bitartean. Tarte horretan zurgatzeko sena oso indartsua da haurraren», azpimarratzen du Nafarroako monitoreak.

Halaber, bularra maiz eskaintzea, haurrak nahi adina esne zurgatzea eta biberroirik ez ematea gomendatzen da. Isabel Garciaeren erranetan, haurrak zenbat eta esne gehiago hartu, amak orduan eta esne gehiago egingen du. «Ez zaio erlojuari begiratu behar, eta bila dabilen guztiak eta negar egiten duen orotan eskaini behar zaio bularra. Horrela, behar beste esne edukitzea bermatuko dugu».

Esnearen Ligako kideek gogorazten dute haur batek goseaz bertzeko arazoak izaten ahal dituela bularra eskatzeko. «Kontsolamendu edo afektibitate bila joaten ahal da umea amaren bularrera, berotasun eta goxotasun bila, alegia».

Ume jaioberriak amaren bular magalean goxo-goxo eta bero-bero daudelako zalantzarik ez dago, bederen.

→ **Kristina Berasain**

Ase egingen du umea titiko esnearekin? Zenbatetan eman behar zaio? Eta esnarazi behar al du bularra emateko? Aunitz dira bularra ematearen inguruan sortzen diren zalantza-mudak, eta hauek argitzen saiatzen da Esnearen Liga. Orain bi monitore daude amei laguntza emateko. Horretarako txostenak, liburuak eta telefono zenbakiak jartzen dituzte eskualdeko hitzaldiak antolatzen dituzte.

Laura Arrondo

«Bularra ematea ez da oraindik naturaltasunez ikusten, mamu asko dago»



NIRE AURRENEKO ALABA IZAN NUENEAN, ez nekizkien *bularra ematearen* inguruan egun dakizkidan gauzak. Orduan medikuek erraten zidatenari soilik egiten nion kasu. Hasi berri bat nintzen. Berehala fruituak eta pureak ematea gomendatu zidaten, eta nik kasu egin nien. Handik sei hilabetera oso nekatuta sentitzen nintzen, eta bularra eman nahi banion ere, ezinezkoa zen.

Gerora, Esnearen Ligakoekin jarri nintzen harremanetan, eta jaso dudako informazioa oso baliagarria suertatu zait. Orain, Koldorekin, bigarren umearekin, guztiz lasai sentitzen naiz. Ez diot begiratten erlojuari, ez ditut zenbatzen bular emateak, eta lasai nago.

Erabat ezberdinak izan dira *bi esperientziak*. Aurreneko alabarekin bularra ematea erlojuaren kontrolpean zegoen nolabait, *hiru ordu* behin ematen nion bularra, nahi ala ez. Orain, aldiz, eskatzen duen guzti-tan ematen diot, eta ez badu nahi, ez

diot ematen. Informazioa *izateak* ziurtasuna eman dit, eta zailtasunak suertatzen direnean, badakizu hor daudela zure arazoak konpontzen saiatzeko.

Kanpotik oraindik ez da naturaltasunez ikusten bularra ematea. Berehala etiketa jartzen dizute, eta topiko asko dago, mamu asko. Horiei aurre egiten ez da erraza izaten, baldin eta zu oso ziur ez bazaude, eta are gutxiago zailtasunak daudenean.

Monica Sabariegos

«Bularra emateak amatasuna modu sakonagoan bizitzen lagundu dit»



NIRE AURRENEKO ALABA, AIDA, SEI HILABETEREKIN JAIO ZEN, eta bularra emateko asmoa banuen ere, ospitalean eman zituen lehenengo egunak. Etxean ateratzen nuen esnea eta ospitalera eramanean, baina neskatua etxera etorri zenerako esne gehiagorik ez nuela uste nuen. Informazio falta nuen, izan ere, zenbat eta esne gehiago eman haurrari, orduan eta esne gehiago sortzen zaizu. Berriro haurdun gelditu nintzenean, Esnearen Ligakoengana jo nuen, eta bertan zalantza guztiak argitu zizkidaten. Funtsezkoa izan da niretzat haiekin harremanetan jartzea. Konfiantza eman zidaten, eta orain seguru sentitzen naiz; izan ere, sarritan inguruak ere eragin egiten dizu. Topikoak hor daude oraindik ere.

Bularra ematea erosoa, erraza, naturala zela erakutsi zidaten, eta orain, Carlotarekin, amatasuna bertze modu batean bizitzen ari naiz. Abantaila asko ditu *bularra emateak*,

praktikoa da, eta oso pozik nago. Gainera, ez dago amaren esnea bezalakorik. Biberoni alde batean utzi dut.

Pena ematen dit haurrei bularra ematen ez dieten emakumeak ikustek; izan ere, maiz topikoak bultzatuta hartzen dute erabaki hori. Informazioa falta da, eta horrek naturala den zerbaitei, biologikoak den zerbaitei, arraro ikustea eragiten du.



Ohitura zaharrez

'Sorteo coche'-ren atariko. Gurean, usadio sorberriak abiada bizian bilakatzen dira, bilakatzen dituzte, bilakatzen ditugu ohitura zahar. Gurean, gero eta ohitura zaharzale gehiago dago. Gurean, maiz atzerakoikeria ezkututzen du ohitura zaharzaletasunaren gibelean. Horregatik, Gerardo mus bikotekide ikurri baina baskoagoak asteazken arratsaldean gurea ohitura zahar ederra zela esan zidalarik, izotz-edariak antzigturiko muturra okertu nuen. Urtero, Caritasek sanferminetako tonbola jartzeari ekiten diolarik, Gerardo eta biok Sarasate paseabidera hurbiltzen gara, eta Nalia izozki dendan denboraldiko lehen limoi-izotza —gaztelerazko *granizado* hala esan behar dugu euskara

gurbian **Kintana, Azkarate, Mendi-guren Bereziarturen** jarraitzaile Elhuyarzaileok —hartzen dugu. Aitortzeak lotsa ematen dit: **On Goioen** *Ya falta menos* irratsaioko naftalina usaineko gonbidatuetako bat ematen dut —argi gera dadila On Goio maisu handiarekiko errespetu osoz diodala diodana—. Dozena erdi bat urte daramagu erromesaldi gastronomiko-sanferminzalea errepikatzen, eta ekintza bat dozena erdi bat urtez errepikatua izateagatik ez da ohitura zahar bilakatzen. Mutur antzigtatu muturtuak zabalduz, horixe erantzun nion, idor, Gerardori. Idor, ohitura zaharzale atzerakoiak nituelako



Xabier Kintana



Miguel Angel Lotina.

gogoan. Idor, egiten ari ginena, asteazkeneko arratsalde hotzean limoi-izotza edatea, zentzugabekeria zela argi eduki izanagatik ere, egin egiten ari nintzelako, akaso sakon-sakonean nik neuk gurea ohitura zahar ederra dela uste dudalako. «Ohitura zaharra ez bada, zaharren ohitura izanen da», erantzun zidan Gerardok zirikatzaile, Nalian zegoen beste bezero bakarra seinalatuz, gu bezala limoi-izotza edaten ari zen agure zimurtua, urtero uda gerturatzen delarik, neutre anatomia gero eta oparoagoa Zarautzen —**Alfredo Jaimek** bezala, emazteak eta biok *betidanik* Zarautzen igaro-

tzen ditugu oporrak. Hori bai, libururen bat irakurtzeko betarik izaten dugu—agerian uzteko tenorea hurbiltzen delarik, adin krisiak jotzen nauela jakitun.

Esker txarra, ohitura txarra. Erraietan mendeku eske borborka nabaritzen nuen autestimu zauritua limoi-izotz urrupada batez itzalita, elkarriketaren ildo nagusiari eutsi nion: «Zenbat denboran bilaka daiteke ekintza bat ohitura zahar?», itaundu nion. «Markarik azkarrena urtebetekoa da», erantzun zidan. Hiperbolea iruditu zitzaidan. Gerardo, baina, gutxitan ibiltzen da ahoberokeriatan —*farolak* gutxitan

botatzen dituela, alegia—, musean zein lagunarteko elkarrizketetan. Berehala jarri zuen dantzan bere ohiko kasuistika jesuitikoa —ez du alferrik jesuitetan ikasi—. Osasunaren kirol lorpenak —igoera, jaitsiera saihestea— Gazteluko plazan ospatzea urte batetik bestera bilakatu da ohitura zahar. Cordovillako egunkariak asteazkeneko zenbakian horixe nabarmendu zuen, ohitura zaharra, tradizioa, ezin izan zela errepikatu —zeharka bada ere, **Martinez Torresen** egunkariak lur azpiko aparkalekuaren aurka egin duen aldi bakarra da—. To marka!

Gurean benetan zaharra den beste ohitura zahar bat etorri zitzaidan gogora: esker txarrekoak izatea —baita ezker txarrekoak ere, Gerardok maiz esaten duenez—. **Miel Anjel Lotina**, Osasuna Lehen Mailara eraman duen gizona badoa, eta agur epelak besterik ez da jasotzen ari. Izotz-edaria amaituta, Gerardo berotu zen: «Kale bati Meñakakoren izena jarri beharko liokete. Hori lortzeko sinadura bilketa egin beharko...». Ez zuen esaldia amaitu. Seguru asko, herritarren sinadura bilketekin udalean zer ohitura zahar dauden oroitzen. «Ze, beste baso bat?», lakonikoa bota zidan.



panpilonia zirkus

Ulises

Jertse granatea zeraman, pikoduna, gal-tzá griskarak, eta atorra argia. Ilea motz antzean, ongi orraztua beti. Ignacio COUn iritsi zen Iruñera, edo, hobeto erran, hona igorri zuten, misiolari. Mutil hizketa garbia eta, hasmentatik beretik, alimaleko kaparra, bere sekta kide guztiak bezala. Dorre Bi deitzen dioten ikas-tetxe-nagusian bizi zen. Den-dena egiten zuen *ad maiorem gloriam Opus Dei*, hau da, fundatzailearen artalde otzan hartara buru gehiago biltzeko asmo hutsarekin. Horregatik, futbito txapelketa antolatzen, UBiko ikasle iruindar guztientzat. Andonik hiru gol sartu zituen: *Institutuan taldea eratu, Dorre Bi-ra joan, eta han, atarian pantalonetarekin ginaudelarik, atezainak kristoren errieta eman ziguan aztalak*

agerian izateagatik. Han txandal luzea jantzi beharra zegoela...

Unibertsitatean dozenaka misiolari zebiltzan, mutil eta neska. Ez zuten sekulan bakerorik jantzen. Neskak beti gonaz jantzita, belauak estalita, galtzerdiak belau-netaraino. Buruan melena erdia. Mutilek eta neskek *Bidea* zeramaten beti, Escrivaren irakaspenak makalduz gero, huraxe irakurri eta gogoia indarberritzeko. Gainean ere, libreta bat, egunak ekarritako gorabehera guztiak —tentazioak barne— idatziz jasotzeko. Gero, gauez iritsiko zen burua zigortzeko tenorea, zurdatza erabiltza, hots, gerriko latz edo iltzeduna.

Behin, han, —Andonik historia ikasi zuen— Eraikin Zentralean terterter ari zitziguan Ignacio nazkante hura, harekin



Nafarroako Unibertsitatea, OPUSekoa, alegia.

Erromara joateko. Kaparraz landara, hiru lagun gintuan. Bat neska. Laurok igogailuaren zain. Igogailua iritsi, eta, Ignacio ez zuan sartu. Oinez igo zuan. Gero, klasean hari zergatik ez zen sartu galdetu eta kaguen la ordiga! badakik zer erantzun zidaan? Gauza tentagarria izan zitekeela neskaren ondoan hurbil-hurbil joatea eta hobe zela, zer gerta ere, tentazio hura zapla!, segituan moztea. Opustarren manerak ikusita, ez da ha-

hezia koskabiloetan kosk egiteko. Baina, apustu bat zela medio, Caminok eta Koldok egin omen zuten, gauez, sahas baten arrimuan kukutuak. Badaezpada ere, Erriberako luzeroek zakurrak uxatzeko erabili ohi duten aparatua zeramaten, txistu hots bereziak egiten dituen aparatua, alegia. Osorik atera ziren. Ez zen *Ulises* agertu. Kuadrillak Hartzan afaria ordaindu zien.

Enrike Diez de Ultzurrun

Mikel Mikeo

AKTOREA

«Jendeak irri egiten ez duenean ere aurrera jarraitu behar duzu»

● LANDER F. DE ARROYABE / ARGAZKI PRESS

GIDA-BAIMENA LORTZEKO AZ-terketa 37 aldiz egin duen lagunaren istorioa kontatu zuen Mikel Mikeok NUPen; eta oso ongi, gainera, lehen saria eman baitzioten ordainean. Komedia gogoko du, baina ez ditu drama eta musikala baztertzen. Aktore osoa izan nahi du.

■ Monologoaren karrera luzea egitea da zure helburua, edo bat-batean sortu den behin-behineko kontua da?

Oraingoz, beste hainbat aktoreekin, Movimiento Bola izeneko taldea osatu dugu, eta bakarrizketak egiten ari gara Burlata, Atarrabia eta Iruñeko ostuetan, baina jarduera honekin karrera osatuko dudan erratea gehiegizkoa iruditzen zait.

■ Nola hasi zinen?

Taberna baten bosgarren urteurrena ospatzeko, zerbait egiteko eskatu ziguten, eta bakarrizketak egitea erabaki genuen. Jendeak harrera ona egin zigun, eta aurrera jarraitu genuen. Lagun batek NUPen zegoen bakarrizketen lehiaketaren berri eman zidan, eta hiru neuzkanetz idatzita, parte hartzea erabaki nuen. Aurkeztu eta irabazi!

■ 37 izeneko bakarrizketa aurkeztu zenuen. Nola sortu zen lan hori?

Idatzi dudan azkena da. Jende askorengana helduko zen ideia aurkitu nahi nuen, eta burura etorri zitzaidan gida-baimena lortzeko azterketa ongi egin baina gerrikoa ez jartzea-gatik huts egiten duen lagun bati buruzko zer edo zer idaztea. Konturatu nintzen gida-baimenarena oso gai mamitsua dela, eta jendea egoera horrekin identifikatu egiten dela. Horrela sortu zen bakarrizketa hau. Nire ustez, gaia baino gehiago, bakarrizketa batek funtzionatzeko gakoa da jendeak hurbil sentitzen dituen egoerak aurkeztea.

■ Zertaz mintzatu erabaki ondoren, zer egin behar du publikoaren aurrean



Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatu II. Bakarrizketen Lehiaketa irabazi berri du Mikel Mikeo Atarrabiako gazteak. Erizain, eskubaloi jokalaria eta aktore. Nafarroako Antzerki Eskolan ikasi du oholza baten gainean egoten, eta, orain, bakarrizketen bidezko umorea lantzen du Movimiento Bola bere taldearekin.

■ bakarrik agertzen den aktoreak arrakasta izateko?

Nik uste dut garrantzitsua dela jendearen irriak piztera ez ateratzea agertokira. Hau da, oholza gainean jarri eta jende-ari erraten badiozu oso gauza barregarria kontatu behar diozula, barrerik ez eragiteko arrisku handia duzu. Istorio bat kontatu behar duzu; noski, istorioak grazia izan behar du, mamia. Horrela erraza da jendeak bat

egitea zurekin eta haien barrea piztea.

■ Eta ez baduzu lortzen? Gertatu al zaizu publikoak zure txisteekin barrerik ez egitea?

Bai, gertatu izan zait, egun txarra izan dudalako, edo publiko zailagoa delako. Oso gaizki pasatzen duzu. Bat-batean egoera horri buelta emateko gai bazara, primeran, baina hori ez da erraza, eta egin dezakezun gauza bakarra zure istorioa kontatzen jarraitzea da.

■ Badirudi modan dagoela bakarrizketen bidezko umorea.

Bai, gure taldearekin konturatzen ari gara jende-ari gustatzen zaizkiola gisa honetako ikuskizunak.

■ Baina ez da egiten duzun gauza bakarra; berriki, Bertolt Brechten testu bat taularatu duzu Nafarroako Antzerki Eskolako beste ikasle batzuekin, Reich obran; aldaketa galanta, ezta?

Bai. Umore ukituak ere bazituen lanak, baina gaia askoz sakonagoa zen. Egungo gizarte gatazkatsuari errepasso egiten dio. Nik dena dut gustuko, baita dantza egitea ere. Aktore lana ez dut esparru bakar batera mugatu nahi; onena denetarik egin ahal izatea dela uste dut.

■ Nola hasi zinen antzerkiaren mundu horretan?

Niri zinema gustatu zait beti, izugarri, gainera. Erizaina naiz lanbidez, eta uda batean, oposi-

Duela 26 urte sortu zen Mikel Mikeo, Atarrabian. Nafarroako Unibertsitate Publikoan Erizaintza ikasketak egin zituen, eta lanbide horretan aritzen da, asteburuetan. Badu beste zeregin asko, hala ere.

Nafarroako Antzerki Eskolan azken ikasturteko ikasle da, gainera, Mikeo. Aktore izateko prestatzeaz gain, haurrei ere irakasten die, Atarrabiako gazteei, hain zuzen ere. Gainera, Movimiento Bola taldearekin bakarrizketak prestatu eta aurkezten ditu tabernetan.

Kirola ere gogoko du Mikeok, eta eskubaloian aritzen da, Beti Onak taldearekin. Onartu du, hala ere, gero eta denbora gutxiago duela eskubaloirako, eta aspaldi ez dela joan entrenamenduetara. Ez du aspertzeko denborarik!

zio batzuetan huts egin eta Nafarroako Antzerki Eskolako frogak egitea erabaki nuen. Hartu ninduten, eta orain, antzerkia izugarri gustatzen zait. Bideo lanen bat egin dut, eta konturatu naiz aspertu egiten naizela. Antzerki lan batean hiru orduz egon behar baduzu oholza gainean, hiru ordu horietan aktore lana egiten ari zara; zineman edo telebistan ez da hori gertatzen. Ordu laurden batez egiten duzu lan, eta gainerakoa argia ongi jartzen, edo agertokia aldatzen edo beste egiten ematen duzu. Antzerkian, gainera, harreman zuzena duzu publikoarekin, eta aberasgarriagoa da.

■ Zer proiektu duzu orain esku artean?

Monologoekin jarraitzea, batetik, eta NAEko kideekin Reich obra mugitzen saiatu; pena litzateke, egin dugun lan guztia eginda, obra Iruñean bakarrik ikustea. Talo taldearekin ere ari naiz, eta gustatuko litzaidake haurrei irakastea. Kanpora joatea, agian. Auskalo!

→ Edurne Elizondo

«Oholza gainean jarri eta jende-ari erraten badiozu oso gauza barregarria kontatu behar diozula, barrerik ez eragiteko arrisku handia duzu; istorio bat kontatu behar duzu»



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Abiaduran

Iruñean barna orduko lautan hogeik kilometro baino gehiagora joateagatik hirurehun auto gidariri gidatzeko baimena kendu diote. Ez naiz hasiko neurriaren egokitasuna edo ezegokitasuna eztabaidatzen. Lerro hau irakurtzen duzuen gehienek sumatu izanen duzue behin baino gehiagotan gure ondotik igarotzen den kotxe edo moto baten soberako abiadurak eragiten duen haserrea: «hori erotuta dago? Eta haur edo adinekoren bat pasatuko balitz? Horrelakoetan ez da ez polizia agertzen...» eta gisakoak behin baino gehiagotan erran edo pentsatu izanen ditugu ehuneko handi batek. Baina bertze aldetik, nork ez du sumatu azeleradorea zanpatzeko irrika, gogo hori. Ez dut erranen Iruñea erditik, baina autobidean gure auto zaharraren pedala ezin gehiago zanpatu, eta ehun eta hogeira ezin ailegatuz gabiltzanean, tirriki-tarraka, eta ondolik, ziztuan auto handi eta diztiratsu bat ikusi edo, ikusi baino gehiago, pasatzen sumatzen dugunean... Nork ez luke bere autoan zaldi batzuk gehiago onartuko eta *fantasma horri lasterketa desafioa* egingo, legez kanpokoa dela jakin arren?

Kontuak kontu, hirurehun gidari baimenik gabe geldituko dira. Baina apirilean 1.337 auto matrikulatu ziren Nafarroan, iaz tenore berean baino %2,3 gehiago. Beraz, gero eta isun gogorragoak izan arren, alkohol ttantta bakarrak karnetik gabe gelditzeko arriskua dakarren arren, auto eta autobide garestiagoak izan arren... jendeak autoa behar -edo nahi- du. Autobiderik onenean ere ehun eta hogeitik ezin dela pasatu jakinda, zergatik ez zaie auto hauei abiadura muga bat jartzeko fabrikatik? Edo abiadura horretara ailegatzen denean, autoak berak abiadura moteltzeko sistemaren bat ezin al da jarri? Eta gidaria alkohol kopuru jakin batera ailegatutakoan, pizten ez den autorik ez al da asmatu? Eta bidesaririk gabeko autobideak noizko?

Autoa erostea beharra da aunitzentsat, baina bertzeek erosten duten autoekin eta gidariek zerga ederra lortzen dutenak oraindik gehiago dira. Eta hori horrela den bitartean, autoen publizitatea areagotuko da, isunen kopurua (bi aldetatik, zenbakia eta ekonomikoa) handituko da eta, zoritxarrez, istripuak ere ez dira guttiago izanen.

gure aukerak

MUSIKA

- **Mutiloabeiti:** AEKantuz egitarauaren barruan, emanaldia izanen da gaur Mutiloabeitiko pilotalekuan. Bertan Koma, Betagarrri, PiLT, Zirikatu eta TrikiZio taldeak arituko dira, 22:00etan.
- **Zangoza:** Zangozako III. Pop-rock Lehiaketaren baitan, gaur La lengua de trapok joko du Espejo tabernan, 23:00etan, eta El color de la duda Blues tabernan, 24:00etan.
- **Fontellas:** Nafarroa Oinez-eko ekitaldien baitan, Chuchin Ibañez y los chihuahua entzuteko aukera izanen da bihar Konstituzio aretoan.
- **Lizarr:** PiLT taldearen kontzertu bihar gaztetxean, 23:00etan.
- **Mutiloagoiti:** Bihar Eguzki plazan Macaco eta Makuru arituko dira, 23:00etatik aitzina

DANTZA

- **Lizarr:** Escena 2002ren baitan, *Artinex* ikuskizuna taularatuko da gaur 20:30ean Golem zinematik.
- **Zizur Nagusia:** Gaur eta bihar Mudances konpainiak bere azken ikuskizuna plazaratuko du Kultur Etxean. Gaur 22:00etan eta bihar 20:00etan.

ANTZERKIA

- **Bera:** Ane Berasategi ipuin kontalaria arituko da 18:00etan Liburutegian, ipuinen magia haurrei helarazten.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirik antolatutako Zinema Euskaraz zikloaren baitan, Ken Loach zinemagilearen *Ogia eta arrosak* emango dute gaur iluntzeko 20:30ean Golemetan.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** Idoia Beratarbide eta Ane

Gaztelumendi artistak beren lanak paratu dituzte Kultur Etxean, *Gorria* izenburuarekin. Kolore hori izan da haien lan guztien ardatz.

HITZALDIAK

- **Noain:** Alizia Sturtze historialariak *Emakumea Euskal Herrian* hitzaldia emanen du gaur, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Euskal literaturari buruzko jardunaldiak egingen dira datorren astean Erraldoien Txokoan, iluntzeko 20:00etan. Astelehenean Maria Jose Olaziregi arituko da. Asteartean, Koldo Biguri eta Asun Aierbe. Asteazkenean, berriz, Tere Irastorza,

Iban Zaldua eta Aingeru Epaltza mintzatuko dira. Ostegunean Jorge Gimenez eta Ana Urkizarekin izanen da hitzordua, eta ostiralean, azkenik, mahai-ingurua egingen da.

- **Iruñea:** *Hedabideen gaur egungo errealitatea* izenburuko mahai-ingurua egingen da asteartean 19:30ean Planetarioan. Bertan, Mariano Ferrer, Gaizka Aranguren, Mikel Bujanda eta Fermin Munarriz izanen dira hizketan.

KIROLA

- **Arbizu:** Bihar Arbizuko VIII. Duetloia jokatu da, arratsaldeko 17:00etan. Proba Euskadiko zirkuiturako baliagarria izanen da.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Zabaldik, *Mugak Zabalitzen* proiektuaren baitan, Afrikako Kultur Astea antolatzen ari da. Gaur jaialdia egingen da, iluntzeko 20:00etan, eta bihar haurrentzako joko afrikarrak eta antzerkia izanen dira.
- **Iruztzun:** Atzo abiatu ziren Ingurugiroari buruzko XII. Jardunaldiak. Gaur lurrikaren inguruko hitzaldia izanen da Kultur Etxean, 20:00etan. Bihar txangoa egingen dute Irunberriko arroilara. Asteazkenean Yosemitearen diorama emanen dute eta ostegunean xaboiak egiteko ikastaroa izanen dute.

Asteko erakusketa



Pablo Santiago Campion

Non: Zizur Nagusiko kultur etxean.

Noiz arte: maiatzaren 12a arte.

Ordutegia: lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara.

Igandean eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.